

# MERKATU PLAZAKO BERBENAK: Dirua eta bikoteak barra-barra

**O**rain, akaso, modaz pasatuta badaude ere, duela urte gutxi arte berbenak ugariak ziren Elgoibarren. Eta benetan famosoak Elgoibarko Merkatu Plazan egiten ziren berbenak izan ziren.

Merkatu Plaza zaharra bota eta berria egin zutenean, goiko partea apropos prestatu zuten berbenetarako. Barrua barra edo taberna jartzeko prestatu zuten, eta kanpoan, berriz, dantzarako oso terraza egokia.

*Elgoibarko Izarrak Trinitate  
Jaietan antolatzen zuen  
bere berbena, trinitateetako  
danborrada amaitu ondoren.  
Gaueko hamaikak aldera  
hasi eta goizaldera arte  
izaten zen.*

Berbenak dirua ateratzeko antolatzen ziren. Beraz, berbenarako sarrera ordaindu egiten zen. Elgoibarko Izarrak, CD. Elgoibarrek eta beste batzuek berbenak antolatzen zituzten beraien urteko aurrekontuak bete ahal izateko.

Jakin dugunez, berbena horiek jendez gainezka egoten ziren. Jende gaztea izaten zen batez ere, eta kanpotik ere jende asko hurrerutzen zen Elgoibarrera. Orduko musika-talderik garrantzitsuenak ere Elgoibarko Merkatu Plazatik pasa ziren: Koxka, Egan, Akelarre, ....

Jakin dugunez makina bat bikote irten ziren berbena haietatik. Bistan da berbena haietan sortzen zen giroa berezia eta jendearen gustukoa zela.

Elgoibarko Izarrak Trinitate Jaietan antolatzen zuen bere berbena. Trinitateetako danborrada amaitu ostean, berbena hasten zen Merkatu Plazan. Gaueko hamaikak aldean hasi eta goizaldera arte izaten zen. Txarrena berbena amaitu ostean izaten zen, dena jasotzea tokatzen zenean, hain zuzen ere. Baina umore onez egiten omen zuten lan hura ere.

Gainera, iturri onetik jakin dugu Elgoibarko Izarrak diru asko ateratzen zuela berbena haietan.

Baina Elgoibarko Izarrako berbenak ez ziren betiko. Diskotekak eta tabernak ugaritzen hasi zirenean, berbenen errentagarritasunak beherantz egin zuen, eta dirua irabazi beharrean galtzen hasi ziren. Huraxe izan zen Merkatu Plazako berbenen azkena.